

# Bestereganaketa Gatzaren Estankoaren Matxinadaren testuinguruan: lotura eta oposizioen adierazgarri

(Inheritance in the context of the Salt-Tax Revolt as indicative of alliance and opposition)

Zabala Montoya, Mikel

Deustuko Unib.

Aro Berriko eta Historia Garaikide Saila

Unibertsitateetako Etorbidea, 24

48007 Bilbo

BIBLID [1136-6834 (1999), 28; 295-315]

---

*Orain arteko Bizkaiko 1631 eta 1634 bitarteko Gatzaren Estankoaren Matxinadari buruzko ikerketek agiri administratiboak baino ez dituzte aztertu. Artikulu honetan mugimenduko zenbait kideren maila sozioekonomikoa, ezkontza-estrategia eta heredentzia dira aztergai, notal agiriak oinarritzat hartuz, alde zuzenetik ezezagunak genituen hainbat lotura eta aurkakotasun azaltzen baimentzen duelarik.*

*Giltz-Hitzak: Historia Soziala. Altxamendua. Jaraunspena. Bizkaia. XVII. mendea*

*El tratamiento recibido hasta ahora por la Matxinada del Estanco de la Sal (Bizkaia, 1631/1634) ha estado restringido exclusivamente al análisis de documentación administrativa. El presente artículo estudia, en base a documentación notarial, la extracción socioprofesional y las estrategias matrimoniales y hereditarias de algunos de los protagonistas del movimiento; lo cual permite la contrastación de nexos de alianza y líneas de fricción hasta el presente desconocidos.*

*Palabras Clave: Historia Social. Rebelión. Herencia. Bizkaia. Siglo XVII.*

*Toutes les oeuvres sur la revolt de l'estanco du sel (Biscaye, 1631/1634) ont étudié exclusivement sources administratives. Après de travailler avec documentation notariale, cet article analysera l'extraction sociale et professionnelle, la stratégie matrimoniale et l'héritage dans quelques protagonistes de la revolt. Donc, on découvrirra qu'il y a certaines alliances et frictions méconnues jusqu'à présent.*

*Mots Clés: Histoire Sociale. Rébellion. Héritage. Biscaye. XVII. siècle.*

## SARRERA

Ezaguna denez, Matxinadak Antzin Erregimeneko tentsiotako adierazpiderik nagusienak dira. Mendebaldeko Europa osoko antzeko mugimenduek nahiko bibliografia ugari sortarazi dute. Gehienbat testuinguru sozioekonomiko zein politiko orokorretan sakondu dute: zerga politika itogarria, Estatu zentralarekiko tira birak, etengabeko gudak, etab.<sup>1</sup> Euskal Herriari dagoenez, ekoizpen bibliografikoa oparoa izan arren, arlo berberak jarraitu izan dira, agiri administratibotan<sup>2</sup> eta gertakizunik ikusgarrienen oinarrituta, batik bat. Ikerketa baliogarriak noski, baina dagoeneko nahiko jorratuak; iraupen luzeagoko edota azalerakoa ez diren bestelako egoera konfliktibotan sakondu gabe. Ez dakit nik XVIII. eta XIX. mendeetarako iturri horiek nahiko ote diren mota honetako gatazketan jatorrizko sustraietaraino murgiltzeko. Gatzaren Estankoaren Matxinadaren kasurako, behintzat, ez dut uste: are gutxiago *Re-lación...*<sup>3</sup> delako idazkia hitzez hitz jarraituz gero, orain arte gertatu den modura<sup>4</sup>. E. FERNÁNDEZ DE PINEDO edo R. BARAHONA ditugu honen adibideak<sup>5</sup>. Bertan klase ezberdinetako kideen partaidetza azaltzen ba da ere, gizarte honen sailkapen sozioekonomikoa ez da behar bezala gauzatzten. Are gehiago, berdintasun juridikoa onartzen duen gizartea izanik, norberaren gaitasun ekonomikoak askoz garrantzi handiago izan behar. Beraz, garai honetako gertakizunak konprenitzeko, ondareetako azterketa talde ezberdinetako sarea definitzen, kide bakoitzeko loturak argitzen edota orain arteko lanetako irakurketa ekonomikoa argitzera lagungarri izan daiteke; zeren eta alde bietan gaitasun nabarmeneko zein baliabide gutxiko kideak izateak ez baitu esan nahi norberaren aberastasun mailak Matxinadan zeharreko jokabidearekin bat ez datozenik; ezta gertakizunetan barna jasandako bilakaerarekin -izatekotan- ere zerrikusia ez duenik. Edo bestela esanda: ba ote dago inolako zerrikusia norberaren gaitasun ekonomikoa eta Matxinadan jokaturiko paperaren artean? Zein heinetan kide bakoitzaren finantziabideak baldintzatzen du Matxinadan alde batetan zein bestetan egotea?

Era berean, aurrez aipaturiko berdintasun juridikoa dela medio, odolezko loturak ere zertu beharra dago: Foru Berriari esker ezarritako kaparetasun orokorrek gizarte honen mugikortasuna erraztuko ei zuen. Beronen ezagupenerako ezkontza-hitzarmenek famili barneko estrategia isladatzen dute.

---

1. Hain entzute handiko eztabaidako partaideak R. MOUSNIER (*Furores campesinos. Los campesinos en las revueltas del siglo XVII (Francia, Rusia, China)* Madril, 1976) eta B. PORSCHEV (*Los levantamientos populares en Francia en el Siglo XVII* Madril, 1978) horren adibide ditugu. Beraien eredu teoriko globalen eraginak luzaro iraungo zuen. Baita, azken bolada honetan, bestelako eredu teoriko laudagarriak (i.e., E.P. THOMPSON-en *ekonomia morala* -ikus: *Costumbres en común*artzelona, 1995. esate baterako): arazoa zera da, eredu teorikoak behar bezala aplikatzeko jatorrizko iturriekin bat etorri behar direla. Eta horixe da, hain zuzen, orain arte Gatzaren Estankoaren Matxinadari buruzko lan guztien mugapena.

2. Honen azkenengo adibideak: J.M.<sup>º</sup>. IÑURRATEGUI: *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres. Foralid y conflicto social al final del Antiguo Régimen en Guipúzcoa* Bilbo, 1996, passim; edota C. RIBECHINI: *De la Guerra de la Convención a la Zamacollada. Insumisión, Matxinada, Dispersión* Donostia, 1996, passim.

3. Ikus. R. M.<sup>º</sup> MIEZA: "La Machinada del Estanco de la Sal: una hipótesis de interpretación" In *Ernaoa* 6 (1991), 41-102. orr.; non idazkia bera ezezik, partaideen glosa salatzaileak ere azaltzen diren. Hurrengo aipamenterako berdín.

4. Salbuespenak salbuespen, R. M.<sup>º</sup> MIEZA: *Ibid.*, 41-58. orr. Zer esanik ez: nere ikerketetarako oinarria eta zuzendaritza zientifikoa bere eskuetan dago.

5. E. FERNÁNDEZ DE PINEDO: *Crecimiento económico y transformaciones sociales en el País Vasco (1100-1850)* Madril, 1974, 61-77. orr.: iturri aldetik ezer berririk ez. R. BARAHONA AREVALO: "A Seventeenth Century Vizcayan Sociopolitical Movement: The Salt Tax Revolt (1631-1634)" In *EEBB: II Euskal Mundu Biltzarra. Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra. III. Alea. Ekonomia, Gizartea eta Kultura Antzinako Erregimenean* Donostia, 1988, 319-326. orr.; bere tesiaren laburpen gisa; azkenengo hau, tamalez, argitaragabea. Hala ere, aurreko ildo metodologiko berbera jarraitzen du; nola baita berorren iturrienganako sineskortasuna ere.

Ezkontza-hitzarmeneta eta testamenduetan oinarritutako metodologia prosopografikoa izango da, inferi zitekeenez, hau erdiesteko tresna. Ezagututako (edota, beharbada, kontserbaturiko) iturri mota horren kopurua nahi bezalakoa ez denez gero, harreman ekonomiko zein odolezkoak adierazten dituzten agiri mota guztiak erabiliko ditut, nahiz eta besteak horrenbeste aberastasunik ez izan.

Gai honen ardatz nagusienak ditugun ezkontza-hitzarmen eta testamenduetan gauzaten den jaraunspena ez dut uste kontzeptu ekonomiko hutsez ulertu behar denik, bizitzako alor guztiak arautzen baitira, besteak beste:

- Ondorengoan ogibidea: "...es condizion que los dhos. casantes con lo que traemos al dho. matrimonio ayamos de poner tienda drapería y a ello sea compelido el dho. Francisco (Urizar, senargaia) con todo el rigor de justicia..."<sup>6</sup>. Era berean, empresa baten jarraipena: Mateo de Echavari-k Damian bere anaiaari Erret Armadarentzako bi galeoietako zerbitzua bere gain har zezan artikulua<sup>7</sup>.

- Beraien bizilekua: seme-alaben arteko etxebizitzaren banaketaren arabera baldintzatzten bada ere, sarritan derrigorrezkoa izaten da (gehienbat leinu zaharretako artikulua, oinetxearen jarraipena mantentzeko): honela, Pedro López de Oronzua-k Markinako Barroeta oinetxeako dorretxean bizi beharko du María de Barroeta-rekin ezkondu ahal izateko<sup>8</sup>; edota Pedro de Urasandi-k (betiere "salbo si estubiere en el servicio de S.M. o de rrepublica"), bere ama zen doña Ana de Butrón-en testamenduaren arabera<sup>9</sup>; baita Domingo Martínez de Isasi y Leguizamón-ek testamenduan maiorazkoko jaraunstzaileari aginduta: bere alaben gipuzkoar maiorazkoekiko loturak kontutan hartuta bere oinetxeako jarraipena mantentzeko bide bakarra<sup>10</sup>. Ez da, dena dela, hala izan behar: Martín de Arostegui-ren testamenduan lehenbiziko urtez baino ez zuen Arostegui-ko dorretxean bizitzea agindu<sup>11</sup>.

- Gurasoen bizibideko azkenengo urtetako diru sarrerak: seme-alaben ezkontzak, hein batetan, gurasoen jubilazioa zekarren, hauek pentsio finkoa gordetzen zuten eta. Hau ez zen behe mailako klaseei soilik zegokien ezaugarria, gizarte osoarena baizik; zeren eta Mari Ibáñez de Basurto y Acha-k (Antonio de Basurto-ren alargunak) -esaterako- ere, gela bat, 500 dukatatako zentsuak, 100 dukata zilarretan, eta Basabe baserriko errentak gorde baitzituen<sup>12</sup>.

- Auzietako jarraipena: Pedro de Urasandi-ren alarguna zen doña Ana de Butrón-ek herentzia aldatuko zuen bere iloben alde, betiere auzitegietan zegoen jaraunspena zela kausa autoetan parte hartuz gero<sup>13</sup>.

---

6. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Martín de Laveaga: 5538. p.s.: Francisco de Urizar eta Domenga de Iturrizar-en arteko ezkontza-agiria (1634.V.18), 246-248. orr.

7. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Juan Pérez de Burgoa: 3117. p.s., Mateo de Echavari-ren testamendua (1633.V.8).

8. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1962. p.s., 11. znbk.: Pedro López de Oronzua eta María de Barroeta-ren arteko ezkontza-agiriaren kopia.

9. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Juan Pérez de Burgoa: doña Ana de Butrón-en testamendua (1606.VII.18).

10. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: San Juan de Urquieta: 3784. p.s.: Domingo Martínez de Isasi-ren testamendua (1632.IX.10).

11. A. ZABALA OTZAMIZ-TREMOYA: *Historia de Bermeo*, Bermeo, 1931, II. Aleko 587-589. orr.

12. B.F.A.A.: Bestelakoak: Villarías: 36. Liburua, 5. Erreg., 19. znbk.: Juan de Barraicua Lizentziatua eta Ana María de Arriola-ren arteko ezkontza-agiria (1625.VII.13): senargaiak 11.700 dukata eraman zuen bitartean, emaztegaiak 4.600 dukata. Aipatu bezala, jubilazioa ez da hitzez hitz betetzen, amaginarebak bere gai hartzen baitu baserriko errentak jasotzea.

13. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Juan Pérez de Burgoa: 4728. p.s.: doña Ana de Butrón-en testamendu berria (1638.XI.20).

Egia esan, ezkontideen askatasuna ez omen zen orokorrean gehiegi kontutan hartzen. Ez dago, dena dela, eredu bakarra ikusterik; azken batean norberaren jarrerak garaiko usarioak albora zitzakeen. Aurreko adibide berean jarraituz, Pedro de Urasandi-k, esaterako, ez zuen aukerarik izan:

“...Ytem, con la condición y grabamen que qualquier de nuestros hijos y cada uno de ellos se ayan de cassar y tomar estado de matrimonio o religion con consentimiento y voluntad de qualquiera de nos que bibo quedare y no açiendolo asi desde luego los tales desheredamos”<sup>14</sup>

Bestetan, berriz, askatasunerako alorra antzeman daiteke. Mari Cruz de Landecho eta Juan de Landecho-ren arteko ezkontza-agirian, adibidez, deuseztapena baimentzen zaizkie ezkontideei betiere beraien adina kontutan hartuta (16 eta 12 urte, hain zuzen); horrez gain, emaztegaiak moja sartzen erabaki izanez gero, 1.200 dukata jasoko zukeen, eta beste batekin esposatzekotan, 1.000 dukata<sup>15</sup>.

Besterenganazetako zutabe nagusienetariakoak diren agiri hauetan familietako gaitasuna, ahalbideak, interesak, etab.; famili estrategia, azken batean<sup>16</sup> azaltzen dira.

## **MATXINADAKO PARTAIDEAK: DATU BATZU ETASAILKAPEN SOZIOEKONOMIKO OROKORRAREN SAIATZEA**

Printzipioz, eta kokapenaren arabera, bi eremu dago: Bilboko ingurunea eta Bizkaiko Ekialdea. Banan banan aztertuko ditut.

Bilbon ezagututako partaide gehienak ditugu. Sailkapen sozioekonomiko kuantitatibo zehatzik proposatzea ez da batere errazik, kriterio ezberdinak erabili ahal izateagatik nola baita batzbesteko sektorez sektoreko uteroko errentak edota prezioak behar bezala ez ezagutzeagatik ere. Behin behineko kriterioa izan arren, Udal hauteskundetan parte hartzeko gutxienezko diru kopurua zen 1.000 dukatatakoa aukeratu dut, zeren eta hauxe baita ohorezko kargurik arruntena eskuratzeko derrigorrezko betebeharra, eta -era berean- talde honetan sartu nahi ta ezinean (edo kanporatu nahian) aritutakoen iskanbila Matxinadan bertan azalduko baita<sup>17</sup>.

Heriotz zigorra jasotako De la Puente familiko bi kide merkatarizat har ditzakegu. Goredolako jatorrizko Juan de la Puente Bilbon finkatu zen -nahiz eta Urtusaustegui-ko etxaldea

14. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Juan Pérez de Burgoa: 3111. p.s.: doña Ana de Butrón-en testamendua (1606.VII.18).

15. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Gonzalo de Lopategui: 5012. p.s.: Juan de Landecho eta María de Landecho-ren arteko ezkontza-agiria (1635.VII.6). Emaztegaiaren aita zen Juan de Landecho Zamudioko apaizaren jarrera argi ta garbia zen: Juan de Landecho-rekin ezkontzekotan 3.000 dukata emango zion.

16. Cf. F. MARTÍNEZ RUEDA: “Poder local y oligarquías en el País Vasco: las estrategias del grupo dominante en la comunidad tradicional” In J.M<sup>º</sup>. IMICOZ BEUNZA (Zuz.): *Elites, poder y red social: Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna (Estado de la cuestión y perspectivas)*, Bilbo, 1996, 131. orr.

17. “...sin embargo de que en esta dha villa nunca se abía reparado para las dhas elecciones en la hacienda que tienen los que son elegidos para los dhos ofiçios, y muchisimos, sin tener ninguna abían entrado y entraban en las dhas elecciones, la parte de la dha villa por hazer gastar al dho. su marido y alargar esta causa (...) para que se pase el año avía pedido compulsoria para compulsar el contrato dotal deste otorgante, para suponer era deuda del dho su marido y no tener mas hacienda y asi faltarle el requisito de los mil ducados, (...) aunque siempre en esta dha villa se ha reputado la hacienda de la muger y del marido por una mesma para los dhos ofiçios...” (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Laveaga: 5535. p.s.: (1631.XI.30), 178. orr.)

ez bestereganatu. Ingurune berekoa zen María García de Zancoeta-rekin esposatu zen, honek 1.600 dukata zekarrelarik<sup>18</sup>. Behin erahila izanez gero, bere emazteak jasoko zuen here-dentzia. Enbargo ekonomikoa Antzin Erregimeneko zigor mota arrunta dugu. Beste hainbat Matxinadetan ez bezala, oraingo honetan ez dago ordena berrezartzeko bidalitako armada-ren gastuetako aitzakirik: amnistiari gabeiko matxinoen bizibidea itoarazteko jokabidea bes-terik ez, nonbait. Noski, erresistentzia, ez omen zen makala izan: abagadunea izan zuenak on-dareak izkutatzeari ekin ei zion. Hori dela kausa, Bilboko Justiziak zigortutako on-dareak gordetzen zituenen aurkako pregoia bota behar izan zuen 1634.eko Maiatzak 26.ean<sup>19</sup>. Alfe-ririkakoa: Juan de la Puente-ren alarguna bere senarra zenaren zenbait gauza izkutuko zuen; horretarako bere koinata zen María Pérez de Mortarana-rengana joko zuen. Beste kasutan be-zala, alargunak hidakoaren ondareak beretzat hartuko zituen epaileen aurrean. Seme-alaba-rik gabe, gaitzen da beronen leinua.

Bere loba zen Pedro de la Puente Martín de Mallona Zabala iskribau bilbotarraren ala-barekin ezkondu zen. 1632.eko Azaroak 28.ean, etxetik ihes egitean -Erret Kantzelaritzako Al-guazila zen Pedro de Salinas haren bila zetorren eta- Lope de la Puente (bere aita), Juan de la Puente (bere osaba) eta bere emaztearentzat lagako zituen ahaleginak "sin limitación al-guna", mota guztietako ordainketetarako<sup>20</sup>. Iruneara egingo du ihes, Gotorlekura<sup>21</sup>. Erret Ar-mada galderarik gabe norbere bizitza berrantolatze erarik arruntenetarikoa zen. Behin behi-neko konponbidea, seguru asko: honela Lope de la Puente bere aitari Iskribautza saldu baino alokatze (sei urtez berrerosko eskubidea mantenduko zuen) agindua dugu. Handik urtebete batzutura berriro azalduko zen, bere merkatal iharduerari esker, Kontsuletexko zu-zendaritzan sartu ahal izango zelarik<sup>22</sup>. Bere alaba bakarra zen María de la Puente don Fran-cisco Hurtado de Salcedo Sierralta Santiago-ko habituaen titular enkarterrietarra lotuko zen, ezkontzetarako -bere osaba zen Antonio Mallona de Zabala Idazkariaren laguntza ekonomi-koa zela medio- 11.000 dukata eramango zuen<sup>23</sup>.

Ogibide berekoa zen urkaturiko Juan de Larrabaster ere (Juan de la Puente-k saldu zion Iskribautza<sup>24</sup>). Aspalditik finkaturik Bilbon, iskribautza eta alokaturiko etxebizitzaren baten ja-betza nolabaiteko gaitasun ekonomikoaren adierazgarriak dira. Mari San Juan de Jauregui es-posatuko zuen. Jaraunspenari dagokionez, ez diot semealabarik ezagutzen, jarraian, alta, bere emazteak heredatuko zuelarik<sup>25</sup>.

---

18. B.F.A.A.: Korreg.: 1186. p.s.: 10. znbk.

19. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 94. p.s., 13. znbk., 55. orr. eta hurr.

20. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Arauco: 2554. p.s. (1632.XI.28). Ahalmena, egia esan, ez omen zen protokolizatu; Pe-dro de la Puente-ren aurreko ihesagatik edo. Horrek ez du, hargatik, beronen asma deuseztatzen.

21. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Martínez del Campo: 3594. p.s. (1634.IX.30), 559-564 orr.; baita atal bereko Isk.: Simón de Cebericha: 3749. p.s. (1634.VIII.11).

22. Kontsuletexko kargudunen zerrendetarako, ikus. E. J. LABAYRU: *Historia General del Señorío de Bizcaya* Bilbo, 1971, V. aleko 612. orr. Artilezko merkatal hartuemanetan, esaterako (40.686 libera *aninos* aterako zuen 1635.eko Urta-rrilak 3 eta 18. bitartean -B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1119. p.s., 35. znbk.).

23. V.E.K.A.: B.E.: 1438. p.s., 6. znbk.: 1650.III.23.

24. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: G. Lopategui: 5010. p.s.: 1631.II.23.

25. Iskribautza ezezik bestelako errenta motak ere eskuratzen zituen: merkatal hartuemanak (mando -*muleto*- bat-zuen salmenta: B.A.H.P.: N.A.: Isk.: T. Llona: 4788. p.s.: 1628.IV.1); edota Bilboko alokairuak (Tenderia Kalekoak edo En-parantzakoak -cf. B.A.H.P.: N.A.: M. Arauco: 2554. p.s., 1632.IX.16; B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 2614. p.s., 19. znbk.). Mari San Juan de Jauregui bere ezkontidearen dotea ez ezagutu arren, beronen bigarren ezkontza izan zen, non lehen ez-kontzati atarramenduren bat lortu zuela susma daitekeen (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: T. Llona: 4788. p.s., 1628.IV.1).

Erandiotar jatorrizkoa Martín de Arauco de Urasandi-k Erret Fabrika ta Armadetako iskribaua<sup>26</sup> Bilbora jo zuen, Erandioko ondareak mantendu zituelarik. Mari Ochoa de Urasandi ezkondu, bi etxeak batuko zituen; non beronen testamendurako ondare multzo inportantea bilduta izango zuen: zazpi baserri (beraien etxaldeekin) Erandion; baserri bat Leioan (zortzi behiz); beste etxe berri bat Abandoko Ollerias-en, goitik beherako etxebizitza Barrenkalen; zentsutan inbertitutako 2.500 dukata; 400 dukata ostilamendutan; etab. Oinordekotzari dago-kionez, bi seme izanik, maiorazko bana sortuko zituen. Diego lehenbizikoak Erandioko lau etxebizitza eta zentsuetako lau bosten jasoko zituen; Martín-entzat Erandioko bi eta Abando-koak, zentsuetako ehuneneko hogeia eta Iskribautza lagatzen dituen bitartean.

Martín Ochoa de Axorabide Busturialdeko, Markina eta Ondarruko iskribau honek ere Bilbora bideratu omen zituen bere interesak. Bere gurasoen seme bakarra izanik, hiru Iskribautza ezezik, inguruneke beste hainbat etxebizitza, baserri eta etxalde jaso omen zuen: sagardiak, garitzak, xararteak, gastainondoak eta bestelako lur-eremuak. Bilbon pisua alokatu<sup>27</sup> eta San Juan de Bambio eta Marina Ortiz de San Pelayo-ren alaba zen Juana de Bambio-rekin ezkonduko zen. Ezkontzetako negoziaketak zalapartarien buruzagienetarikoa eta Axorabide-ren koinata zen Miguel de Undona-k burutuko zituen. Oso maila ekonomiko nabarmeneko emaztea izateaz gain (4.000 dukatatako ondareak eramango zituen) Francisco Ortiz de Urixta y Artunduaga-ren alarguna ta beronen jaraunlea zen<sup>28</sup>. Izan ere ondo zekien Axorabide-k norengana joko zuen: Francisco Ortiz de Urixta eta beronen aurrekoa zen Ochoa de Urixta Bilboko Erregimenduan sartu nahian aritutako kideak ziren<sup>29</sup>.

Miguel de Undona Echavarria abokatua Sebastiana de Undara ta María de Olarreta-rekin ezkondu zen. Bilboko erakundeetan erreboltaria izandako Francisco Ortiz de Urixta y Artunduaga-ren ordezkaria *-curador-* izan zen<sup>30</sup>; beronen alarguna Martín Ochoa de Axorabide bere koinatarekin ezkonduz. Bere diru-sarrerak Zuzenbideaz ezezik merkararitza ere sustengatzen ziren: batazbesteko 500 dukata irabazten omen zuen urtero<sup>31</sup>.

*Relación...* delako idazkiaren esanetan zalapartarien buruzagitzako kidea zen Cristobal de Morga Beitia y Sarabia<sup>32</sup>. Aurrekoak bezala, bizibide liberalekoa, Erret Kontseiluetako Abokatua, alegia. Palmetara joandako Juan Martínez de Morga eta Clara de Espinosa y Sarabiarren seme bakarra -eta ondorengoko bakarra- izanik, beraiengandik jasoko zituen hainbat ondare<sup>33</sup>, nola baita Juan Martínez de Morga-ren alarguna zen María de Landecho bere amama-rengandik ere<sup>34</sup>. Aurreko kasuetan ez bezala, bere bi ezkontza-agiri osoak ezagutzen ditut,

---

26. Aintzineko familiaren lehensema (cf. J. M<sup>o</sup> URRUTIA Y LLANO: *La casa Urrutia de Avellaneda y familias enlazadas españolas y americanas* Bilbo, 1968, 585-586. orr.)

27. Tenderia Kalean, hilerri ondoan. B.A.H.P.: Isk.: M. Arauco: 2554. p.s. (1634.III.20).

28. Errenta mota berriak bereganatuko zituen, nonbait: besteak beste, Bilboko zenbait etxebizitza (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: D. Zamudio: 4041. p.s., 1626.VII.12).

29. Francisco Ortiz de Urixta, 1608.ean Erregidore izanik, Domingo Martínez de Isasi-ri legez kanpo saldatuko haresia zela eta Kontzeju Irekia deitzeko eskatuko zuen (B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1284. p.s., 19. znbk.; 1610.X.15). Ochoa de Urixta, bere aldetik, 1597.eko hauteskundeetara ez zen onartua izan ohialdenda izatearren (B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1603. p.s., 55. znbk. 35-36. orr., 1598.II.15).

30. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: D. Zamudio: 4041. p.s.: 1626.VII.12.

31. Lekukoak ez datoz bat: batzuen esanetan bi ogibidetaz; bestetan berriz Zuzenbideaz (V.E.K.A.: B.E.: 1021. p.s., 8. znbk.: María de Retes-en aitortza, 84. orr.).

32. Beitia abizena nondik datorkion ez dakit. Garai honetako abizenen nahaste-borrastea ez dut oraingoz argitu ahal izan: maiorazkoetako araudiak ez diren beste motibapen batzu ere badaudelakoan nago.

33. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Laveaga: 5535. p.s. (1631.III.13), 105-107. orr.

34. V.E.K.A.: B.E.: 1168. p.s., 2. znbk. (1622.XII.5).

non oso gaitasun ekonomiko nabaria ezezik, Bilboko zenbait taldereko joera adierazten den. Bietara 6.000 dukata inguru eramango zuen (Kanarietako ondareak eta bertatik espero zeza-keen jaraunspena ere barne). Lehenbizikoa, Kotsuletzeko Idazkaria hainbat urtez izandako Gonzalo de Lopategui eta Catalina Saenz de Inglés-en alaba zen Marina Saez de Lopategui-rekin lotuko zen, 1.300 dukata zekarrelarik<sup>35</sup>. Jarraian Martín de Laveaga Hiribilduen Idazkaria izanik Batzar Nagusietako zalapartaria<sup>36</sup> izandako Martín de Laveaga-ren arreba zen Ana María de Laveaga-rekin ezkonduko zen emazteak 1.600 dukata besterik ez zeraman bitartean<sup>37</sup>.

Bere azkenengo urteetan, gutxienez, estualdi ekonomikoak jasan omen zituen, hartzeko-dunak maiz askotan etxeratzen zitzaizkionean zorrak kobratzeko asmoz. Beronen hereden-tziari muzin egiteko Irabien Doktorea eta Sancha de Landecho bere ondorengoan aitzakitatz hartutako honek sinesgarritasun osoa merezi zuenik, berriz, ez dut uste: alde batetik, ja-raunspena jasotzeko izan zitzaizketen ahalbideak murrizt baina murriztazagoak ziren (emaztearen lehentasunaz aparte ez dezagun ahaz zigortutako guztien aurkako bahitura ekonomikoa); tal-de menperatzaileko kideak izanik, bestalde, ez ote zuten gura familiariko *status*-a parekoen ar-tean mantendu nahi, zirriborrorik gabe? Adierazgarria da oso, alde honetatik, erahildakoa fa-miliko hilobian lurperatzeko debekua<sup>38</sup>.

Morga *abintestato* hil zen. Eta ez nahita. Zoritzarreko 1634.eko Maiatzak 24 hartan es-petxean zegoenean, testamendua egiten uzteko eskatu zuen ta ezetza jasotzean, garrasika hasi omen zen:

“...diciendo con biba boz, y eficazes ansias (...) señor cura no me an dado lugar para hazer testamento, y VM. entregue, a mi muger, en señal de que la deyo por heredera, esta sortixa y relicario...”<sup>39</sup>

Martín de Zaldúa alferiza edo postaria dugu. Bere lanbideaz ezezik, merkataritzaz ihar-dun zuen, halaber<sup>40</sup> (izan ere artezkaritzetan ez sartu arren, Kotsuletzeko kidea zen), Udal kargudun hainbat aldiz izan bazen ere<sup>41</sup>.

Noski baietz, aurrez aipaturiko goi eta erdi mailako kideak ezezik, oso bestelako partai-deak ere badaudela. Vizcayngan anaiak honen adibide ditugu: beraien emazteek (Domingo-ren María de Orregui eta Juan-en Margarita de Bengoechea), eta aberastasun mailak beste inguru sozial ezberdinetara garamatza. Domingo-ren testamendua ezagutzen dut, non baliabide gehiegirik gabeko errementaria azaltzen zaigun: seme-alabarik ez, bere emazteari laga-ko dio bere aberastasun bakarra den iltze ta ferra guztia; betiere zor guztiak ordainduz gero (berrehunen bat errealetako zorrak baldin baditu, ez omen da horren kopuru garairik, egune-

35. V.E.K.A.: Ibid.: 1624.V.4.

36. F. SAGARMÍNAGA: *El Gobierno y el Régimen Foral del Señorío de Vizcaya desde el reinado de Felipe II hasta la mayor edad de Isabel II* Bilbo, 1988 (berrarg.), I Aleko, 413. orr. eta hurr. Emaztearen izenean Gabriel abokatuak eta bere anaia zen Martín de Laveaga-k hartuko zuten parte berauen arrebaren izenean (azken batean, nahiz eta dirua gu-rasoen jaraunspenarengandik jasotakoa izan, beraien administraziopean omen zegoen).

37. V.E.K.A.: 1168. p.s., 2. znbk. (1627.X.9).

38. V.E.K.A.: Ibid.: 172. eta 16. orr. (aurreko aipamenetarako).

39. V.E.K.A.: Ibid.: María Ortiz de Laveaga-ren galdeketa.

40. Baleazko koipea esaterako (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: J. Larrabaster: 5573. p.s. (1631.XI.10), 100. orr.

41. Bere semea zen Domingo Salamanca-ko Unibertsitateko ikasketen ordaiketei aurre egiteko prest bai, baina beronek, bortxaketa zela ta, 1.000 dukata gehiago ordainarazi zienez gero, hil ondorengoko ondarean zatiketetan kobra ziezaioten kodiziloa izkiriatu zuen (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Laveaga: 5539. p.s.: 1636.XI.22).

roko hartuemanetako kontuen egoera baizik)<sup>42</sup>. Izan ere, behin alargunduz gero, María de Bengoechea-k berehala hartuko zuen bere gain erreminteria, ordezko langilea kontratatzen<sup>43</sup>.

Aurrez esan bezala, Bilbon ezezik bestelako kokapenetan ere lekutzen dira erreboltari egunak, oso maila sozioekonomiko ezberdina daukatela:

Diego de Iruixa izen bereko Zenarruzako kide poteretsua eta bere emaztea zen Teresa de Munibe y Careaga-ren seme bakarra dugu, berarentzako sorturiko oso maiorazko nabaria jasoko zuen; besteak beste, larogei ta hemeretz zentsutan ezarritako 17.140 dukata, alegia<sup>44</sup>. Handik urte batzutarra don Martín de Iruixa y Aldape bere semearen eskuetara helduko da maiztergoa<sup>45</sup>: honek Diego de Iruixa fundatzailea eta beronen semearen ondareak jasotzeaz gain, doña Juana de Aldape bere izekoarenak ere jasoko zituen; horrez gain 10.000 dukata eskuratuko zuen ingurune berekoa zen doña Magdalena de Aramburu Bolibar bere emazte honen bidez.

Gatozen inplikaturiko beste Ahaldun Nagusiaren Ugarte familiara. Gonzalo Ibáñez de Ugarte eta doña Francisca de Ibarra-ren semea zen don Gonzalo de Ugarte-k Ugarte, Zaldibar, Mallea eta Araiz oinetxeetako ondareak maneiatzen zituen<sup>46</sup>, sektore ezberdinetako nahiko kopuru handiak, nonbait; besteak beste: Zaldibargo maiorazkoaren etxaldean errentak; zenbait burdinola (Olaerreakoak, Eizagakoak, etab.); Xemein, Zaldibar, Iurreta eta Mallabiko hamarreakoak; Erret dohainak (hiru *lanzas mareantes* gehi hamaika *ballestas*); Markina eta Ermuko Probestutzak; Begoñako Galtzadetako etxebizitzaren baten errentak; hainbat zentsu; etab. Lurreko errenta mota tradizionalak ezezik, dakusagunez, bestelakoak ere badaude. Jaraunspenari dagokionez, bere seme nagusia zen Juan de Ugarte-k jasoko zituen maiztergoak<sup>47</sup>.

Fernando de Veléndiz Lizentziatua -beste abokatu bat gehiago- bermeotarra Arostegui-ren leinukoa zen don Luis de Butrón<sup>48</sup> eta doña Tota de Zollo-ren alaba zen Mayora de Butrón y Múxica-rekin ezkondu zen. Amnistiarik gabekoa izanik, Lapurdirako Armadan sartuko zen, Juan de Velendiz Kapitainarekin batera<sup>49</sup>. Arostegui-ren leinua berrindartzeko edo, endogamiara joko zuten, María de Veléndiz alaba nagusia beronen lehengusua zen Martín Juan de Arostegui Besandona-rekin esposatuko zen eta<sup>50</sup>.

---

42. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Arauco: 2554. p.s. (1632.IV.29). Zorrak kitatzeko bere anaia eta lankidea zen Juan-i eskatuko zion.

43. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: C. Múxica: 4719. p.s. (1634.XI.21).

44. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 442. p.s., 8. znbk. (1624.X.6). Ehuneneko bosteko interes tipoak 852 dukata produzitzen du urtero. Beraiei esker oso kide eragingarriekin menpekotasunezko loturak finkatzen dira, 1.400 dukatatako zorduna den 1613.ean Ahaldun Nagusia izandako Pedro Ortiz de Olaeta y Zubiaur-ekin, esate baterako. Era berean 2.000 dukatatako ezarpena sortaraziko du Bolibargo elizan (aldea manteduz, 1651.ean Ziortzako Abadeak berak Zenarruzako elizan agindutakoa 1.000 dukatatako besterik ez zen izan: cf. B.F.A.A.: N.A.: Gernikako Protokoloak: Isk.: J. Ceberio Guesala: 69. kutxa: 1651.IX.21).

45. B.F.A.A.: Ibid.: 1652.XI.23.

46. F. BORJA AGUINAGALDE ETA G. VIVES: *El Archivo de los Condes de Peñaflores* Donostia, 1987, 309-311. orr.

47. Mende amaieran don Antonio de Munibe-k Araiz eta Mallea-ko maiztergoen arteko bateraezintasuna aldarrikatuz Kantzelaritararaino eramango zuen oinordekoa (F. BORJA AGUINAGALDE ETA G. VIVES: Ibid.).

48. J.C. GUERRA: "Ilustraciones genealógicas de los linajes vascongados..." In *R.I.E.V.* XIII (1922), 167. orr.

49. B.E.A.H.: Bermeoko Andra Mariren Jasokundea (51001): Hildakoen Liburuak, 1624-1756: 1637.IX.9. Ez dut bere testamendurik kausitu, inguru honetako notal dokumentazioaren galeragatik. Dena dela, hanka egin aurretik gerorako eginkizunak emazteari utzi zion ezezaguna dudana *memorial de papeles* delako batetan.

50. Nahiz eta Luis, Antonio eta Pedro deitutako hiru seme izan (cf. B.E.A.H.: Bermeoko Andra Mariren Jasokundea (51001): Bataioetako Liburuak, 1615-1655), María nagusiena zen (J.C. GUERRA: Art. cit., 167. orr.).



la ezer ez ba dut ezagutzen don Lope de Aulestia gernikarrari buruz, bere goi mailako *status*-a titulapen, abizen eta elkartutako kideen arabera isladatzen da<sup>51</sup>.

## ERASOTUTAKOAK: GAITASUN EKONOMIKOA ETA FAMILI ESTRATEGIA

Aurrekoan bezala, hemen ere protagonista batzu sailkatzen ahaleginduko naiz.

Ustez matxinoen erahildako bakarra zen Domingo de Castañeda legegizona (Korregimenduko Entzuteagiko prokuradorea, alegia) ahalmen ekonomiko eskasekoa dugu. Etorkina izanik, Bilbon ezean Abandoko Albian bizi zen. Mari Saez de Elguero ezkondu zen, ezkontzarako ostilamendua besterik ez zeramala, emazteak 750 dukata nekez eramango zuen bitartean<sup>52</sup>.

Bilboko talde zuzentzaileko kide batzu gogoraraziko dut. Aparicio de Uribe Idazkaria atzerrian eta Erret zerbitzupuan aberastutako etorri berria dugu. Bere doña María de Basurto-rekiko ezkontza-kapitulaziotan oso maila ekonomiko nabarmeneko akordioaren berri ematen da, non garaiko bi maiorazko nabarientarikoak batzen ziren. *Socio-Cultural reproduction* delakoa, hots, familia barruko kide bateko gorapenak dakarren besteen ernegamendu eta sakrifizioa<sup>53</sup>, ez da, betiere, noizbait gogo onez onartuko. Basurto Acha honen adibide dugu. Aparicio de Uribe-ren aurkako lapurketak matxinoei ezezik, Deustu ta Abandoko apaiza zen don Martín de Basurto bere koinatuari ere leporatu behar zaio, zeren eta honek besteen erbestaldia zela medio Basurto Acha-ko maiorazkoaren ardura hartu zuenean iruzur egin baitzien. Ez da harrizkoa: don Lope de Basurto y Acha-k ezarritako 20.000 dukatatako maiorazkoa erakargarriena zen<sup>54</sup> seme bakarra zen don Martín de Basurto-ren ernegamendurako. Sortzailearen ondorengoenganako estrategiak mota guztietako xehetasunak aurreikusita zeuzkan: doña María de Basurto eta Aparicio de Uribe Idazkariaren arteko ezkontza maiorazkoa jasotzeko derrigorrezko baldintza zen; Martín de Uribe-rentzako 1.000 dukata ta erakitzeke zegoen etxe berri bat lagatzen zitzaion bitartean<sup>55</sup>. Zuzenbidean ezezik, bestelako jarreraren bidez bere egitasmoak gauzatzeko prest ei zegoen titularra, non maiorazkoko eskubide guztiei zein legitimei muzin egitera behartu omen zion, mehatzuak eta guztiz, don Martín de Basurto Acha sinestuz gero:

“...y le apremió y forço a hazer la dha. renunçiaçion (...) haviendole para ello dibersas beçes amenaçado que le havia de matar y poniendo manos violentas en el y queriendo maltratarle con armas, solo a fin de que otorgase la dha. renunçiaçion...”<sup>56</sup>

---

51. Gernikako Eliz-agirietan arrastorik ez. Lunoko Kepa Deunaren elizan ez omen zen bataiatu (cf. B.E.A.H.: Lunoko Kepa Deuna (52103): Bataio eta Ezkontzetako Liburuak, 1631-1712). Gernikako Andra Marirako, jakina, ez dago artxibategirik. Don Diego Mendoza de Arteaga, don Lope de Aulestia, Juan Ortiz de Olaeta y Mendieta, Juan Ortiz de Olaeta y Argueraen, Pedro de la Rentería, Juan Lopez de la Rentería, edota Hortun Iñiguez de Acurio-rekin ibili zen Foruko jaietan (B.F.A.A.: N.A.: Gernikako Protokoloak: Isk.: J. Martínez de Dondiz: 288. kutxa: 1632.XII.12)

52. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: F. Allende: 2529. p.s.: 1609.XII.13.

53. R. BRAUN: “Staying on Top: Socio-Cultural Reproduction of European Power Elites” In W. REINHARD (Ed.): *Power Elites and State Building* Oxford, 1996, 247. orr.) Maiz askotan mugikortasun ekonomikoak gorapenak baino ez badiu kontutan hartzen; bestelako joerak bezainbeste garrantzi daukate.

54. B.F.A.A.: Bestelakoak: Villarias: 32. Liburua, 1. Erreg., 15. znbk.: 1631.eko don Martín de Basurto y Acha Aparicio de Uribe-ren aurkako Autoak.

55. B.F.A.A.: Bestelakoak: Villarias: 40. Liburua, 9. Erreg., 11. znbk.: 1622.III.31.

56. Are gehiago: ez omen zuen benetan muzin egin: “...al tiempo que se le hubo preguntado si lo juraría, respondió en boz vaja que no, aunque por miedo del dho. su padre no pudo declararlo mas...” B.F.A.A.: Bestelakoak: Villarias: 32. Liburua, 1. Erreg., 15. znbk.: 1631.eko don Martín de Basurto y Acha Aparicio de Uribe-ren aurkako autoak.

Egia esan, ez omen zen arrunt semea baztertzea alabaren onerako. Dena dela, bien arteko loturak estutuko ziren hurrengo gizaldirako: Pedro Aparicio de Uribe, Idazkariaren maiztergoa jaso ahal izateko Ana María de Basurto y Barraicua-rekin ezkondu beharko<sup>57</sup>.

Aialatar jatorrizkoa zen Bilbon erroturiko Francisco López de Echavarri Lizentziatua. Beronen bigarren ezkontza-agiria ezagutzen dut (Marina Saez de Barrenechea bere aurreko emaztearekiko agiria ez bezala), Antonio Bilbao Tellaecher-aren alaba zen Antonia de Bilbao Tellaecher-erikiko lotura, alegia. Kontsultariak 10.980 dukata eramango zuen, non azkar aberastutako etorkin baten mozkinak antzeman daitezkeen: 4.600 dukatatako aspaldi erositako bi etxe, lau abeletxe ta hainbat etxalde, 1.880 dukatatako zentsu, zentsuetako interesak eta bestelako sarreretako 1.500 dukata, 2.400 dukata bitxikeri ta metalezko objektuetan, eta 600 dukatatako liburuak. Emazteak, 13.127 dukata baino gehiago (ondare guztien balorea, ohi modura, ez da zehazten)<sup>58</sup>. Dirudienez, familia ezagunekin Bilbon sustraitzeko asmoak baita. Ez dakit norainoko eraginik izan zezakeen hau zoritxarreko 1632.eko Abenduak 20 hartan haren bila joandako hiru barberuengan, baina Foruzaletasunarekin zerikusirik ez zuen azalpenaren bat egon behar<sup>59</sup>.

Pedro Fernández del Campo-ren aurkako erasoak berez ulertzen badira ere, aurrekoaren helburuekiko nolabaiteko berdintasuna ba omen dago. Tudela-ko Arana-n jaiotako merkataritza funtzionaria, bertatik etorrita Martín Fernández del Campo bere anai iskribauarekin batera, ta jatorri bereko María Fernandez de Velasco-rekin ezkondua, Kontsuletxeko artezkaritzan maiz askotan hartuko zuen parte, nola baita merkataritza zergatzeko postuetan ere<sup>60</sup>. Fernández del Campo-ren gorakada, 1631 eta 1634 bitarteko estualdia izan ondoren, ez da eten-duko: bere izen bereko semea-k Estatu Idazkaritza, Mejorada-ko Markeseria ta Santiago-ren abitu militarra eskuratuko ditu<sup>61</sup>.

Pedro de Urasandi-ren aurkako ekintza ere konpreni daiteke. Baita bertan adierazten ez diren bestelako portaera batzu ere kontutan hartzekoak dira: aitak izandako Batzar Nagusietako begibistako hauteskundeetako maltzurkeriak, sorginkeriaren aurkako errepresioaren zuzendaritza, etab.<sup>62</sup>. Dena dela, kontutan hartzekoa da baita bere Bilboko burgeseriarengana-ko ezkontza-politika argi ta garbia: Barbara de Taborga-erikiko ezkontza<sup>63</sup>, bere arreba zen Mariana de Urasandi eta Juan Ochoa de Ceceyaga Erret Kantzelaritzako abokatu ohiaren se-

---

57. A. GUERRERO MAYLLO: *Familia y vida cotidiana en una élite de poder: los regidores madrileños en tiempos de Felipe II* Madrid, 1993, 107. orr. Beronen esanetan endogamiarako joera semerik gabeko egoerari aurre egiteko konponbidea da.

58. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: G. Lopategui: 5014. p.s.: 1635.IV.21.

59. Gatzaren Estankoaren aurkako bere bi idazkiak aztertuz gero (ikus. T. GUIARD: *Historia de la Noble Villa de Bilbao* Bilbo, 1971 (1906.eko berrarg.), II. aleko 63-77. orr.), aitzakirik ez.

60. Erret Hamarrekoaren jasotzailea hasi zenetik (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: A. Landaverde: 4999. p.s.: 1627.I.15, 9-10. orr.) akabo bere Kontsuletxeko judikaturak -azkenengoa 1625.ekoa dugu (E.J. LABAYRU: Op. cit., V. aleko 608. orr.). Baita Korregidoreordearena ere -v.g. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: M. Fernández del Campo: 5718. p.s.: 1629.I.8.

61. Cf. T. GUIARD: Op. cit., II. aleko 155. orr.

62. Besteak beste, 1618.eko Ahalduin Nagusiko hauteskundetako zozketetan bi *chantel* delakotan sartua izana; edota Lur Lauekoa ez zen kide bat proposatu izana 1620.eko bozketetan (B.F.A.A.: A.A.: Batzar Nagusietako Aktetako 7. Liburua (1613-1620), 161. orr.; eta bertako 8. Liburua (1620-1629): 12. orr.). Sorginkeria dela eta, ikus. atal bereko Batzar Nagusietako Aktetako 7. Liburua (1613-1620), 68. orr.

63. Nahiz eta gure testuingurutik at gertatu, aipatu gura dut nola azkenengo honen jaraunlea zen bere seme nagusiari maiorazkoa pasatzean epaiketa izan zuen, Juan de Goiri Mantuliz laukariztarrak bere baserria berreskuratzen saiatu zenean, ezegonkortasuneko egoerataz edo baliatuz (B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 3548. p.s., 11. znbk.: 1681.IV.9).

mea zen Juan Bautista de Ceceyaga-ren artekoa<sup>64</sup>, edota aurreko egoera berbera zen María de Urasandi eta Nicolás de Hormaecher merkatareko ezkontza.

Azkenezgo familia honetan aurreko gizalditik era ezberdinetan objektibo berbera egia-ta daiteke: Juan Ochoa de Ceceyaga abokatua 1609.eko Lur Laua eta Hiribilduen arteko behin behineko akordio porrokatuaren egilea dugu<sup>65</sup>. Bilborako joeraren beste adierazbide bat gehiago, nonbait. Aipagarria da, halaber, familia hau barneko tira-birak (nire orain arteko lanaren araberako ezohizko egoera), eta -agian- familiako diziplinak dakarren batasuna edota sakrifizioa: 1596.eko Azaroan, Domingo de Ceceyaga-ren emaztea eta Juan Ochoa de Ceceyaga-ren ama zen Juana de Regoitia hil orduko, semeak ondareen zatiketarako inbentario egitea eskatu zion aitari. Jaramonik ez. 1597.eko Bilboko Udal hauteskundeetan Domingo de Ceceyaga Erregidorearen hautagaiak kanporatuak izango ziren, Juan Ochoa de Ceceyaga Alkate aukeratuz. Honek, gainera, urtebete osoko saiatze legalak pairatuko zituen bere aitaren hautagaiak ez onartzeko (baita gartzelaratu izan ere Kantzelaritzatik bidalitako Pedro Fernández de la Quadra Epailari desakatu egitearren hauteskundeak errepikatzeko exijitu zuenean)<sup>66</sup>. Nahiko egoera bitxia benetan, zeren eta aitak semeari ondareen banaketa ez egiteko behin eta berriz bere dendak kontuetako liburutara (ondare guztiak bereak zirela adierazteko edo) jo zezan aitzakiaz ukatzen zion bitartean, semeak -Alkatetzatik- dendari guztiak Erregidoretzarako zozketetan sartu ahal izateko alde zuzenetik dendak ixtea derrigorrezko baldintzapena zela sententziatuko zuen. Juan Ochoa de Ceceyaga-k, ondorioz, bere testamentuan, zera eskatuko dio bere aitari:

“...ruego al dho. mi padre y señor tenga por bien mirar en su conciencia y hazer buena cuenta de toda la dha. su hazienda que ansi quedó por fin y muerte de la dha. mi madre para que por ella ayan (bere semeek) lo que por ella les pertenezcieren”<sup>67</sup>.

Jarraian, dena dela, Domingo de Ceceyaga-ren gain utziko ditu seme-alaben *curaduría* edo ordezkari-tza.

Bilboko ingurunetik kanpo, talde zuzentzaileko kideren bat aipatu behar. Gorengo mailakoa omen zen Mungiako Vilela-tarretan ohizko familietako ezaugarri anitz betetzen dira: lurreko garrantzi handiko errenten eskurapena, antzeko abizenekiko loturak, aintzineko kargu judizialak (i.e., Foru-Alkatetza, Probetutza), habitu militarrek, Madrilerako objektiboa, Estatu-ko Administrazio mailan oso posizio edota lotura onak, etab.<sup>68</sup>. Odolezko loturen bidez, esan bezala, Lur Laueko zein kanpoko goi mailako beste familia potetsuekin elkartzten zituzten.

---

64. Azkenengo ezkontza-agiri hau ezagutzen dut. Parekotasun ekonomikoak -doña Mariana-k 4.000 dukata eraman- goko ondare guztien ehuneneko hamarra baino gutxiago ziren Juan Bautista de Ceceyaga-ren *arras* deritzonak 500 dukatatakoak ziren bitartean- Urasandi leinuaren Bilborako joera adierazten du, nola baita Ceceyaga-ren aintzineko abizenenganakoa ere. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: J. Pérez de Burgoa: 3111. p.s. (1626.XI.5), 213-216. orr.

65. B.F.A.A.: A.A.: Batzar Nagusietako Aktetako 6. Liburua (1603-1613): 1609.V.29. F. SAGARMÍNAGA-k (Op. cit., I. Aleko, 263. orr.) eta G. MONREAL-ek (*Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*) Bilbo, 1974, 130. orr.) ere beronen berri ematen dute.

66. Hona hemen epaiketa honen prozesu osoa: B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1603. p.s., 55. znbk.; V.E.K.A.: B.E.: 84. p.s., 1. znbk.; atal bereko 93. p.s., 4. znbk.; 254. p.s., 1. znbk.; eta 263. p.s. 4. znbk. (1598-1599). Jakina, betiere Alkatetza, eta ondoko erabakiak, borondatez ala Udala kontrolatzeko *lobby* batek behartuta egin zituen ez dakit. Gartzela zigorra, hala ere, adierazgarria da...

67. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: A. Landaverde: 4985. p.s. (1609.VII.9).

68. Errenta mota berriei muzin egin gabe: untzigintza, esaterako: Zorrotza-n *San Josephe* izeneko galeoia eraiki, eta Sevillan salduko zuen -B.F.A.A.: N.A.: Gernikako Protokoloak: Isk.: J. López de Elguezabal: 258. kutxa: 1627.I.18. XVI. mendeko bigarren erdikaldean eta XVII.eko lehenbizikoan don Pedro de Vilela Manrique de Muxica (1568), don Juan de Vilela Olabarrieta (1618), don Pedro de Vilela Morga (1618), don Juan de Vilela Zorrilla (1623), don Pedro de

Sortetxeko aurreko titularrari zegokionez, Belaustegui-tarrekin eta Zorrilla-tarrekin: izan ere, lotura batek hurrengora zeraman: doña María de Belaustegui-z alargunduta, doña Isabel de Zorrilla Arce-rekin esposatu zelarik, lehenbiziko ezkontzako alaba zen doña María Constanza don Carlos de Robles zornotzatarrekin ezkunduko zuen, Belaustegui ta Areilza-ko maiorazkoak eramango zituelarik<sup>69</sup>. Hortik aurrera, biak elkarrekin azalduko ziren noizbait<sup>70</sup>. Dena dela, are adierazgarriagoa da don Pedro de Villela Arce-ren oinaztar leinuko burua eta Ciudad Real-go Dukearen alaba zen doña Isabel de Idiaquez Butron y Muxica-kekiko ezkontza<sup>71</sup>.

Horrek muinaren ardatz nagusira garamatza, nonbait. Butrón eta Múxica oinetxeetako buru zen Ciudad Real-go Dukearen nagusitasuna ukatzerik ez dago (ekonomi mailan zein menpekotasunezko sareetan -harreman ekonomikoak ezezik, edo berauekin batera, odolezkoak ere azaltzen diren, abizenak ikusi besterik ez dago-; edota baita kanpoko loturetan ere). Hona hemen horren adibidea den 1633-1634.eko bere errendatarien aukeraketa:

<i>Kidea</i>	<i>Foru Aldundiko karguak</i>	<i>Errentapena</i>	<i>Dohaina</i>
Don Antonio de Butrón y Urquiaga	.1607: Ahaldu Nagusia .1632: Ahaldu Nagusirako Hautagaia	.Erandioko hamarrekoak	Bai
Don Luis de Butrón	.1609: Ahaldu Nagusirako Hautagaia .1616: Ahaldu Nagusia .1624: Ahaldu Nagusirako Hautagaia .1630: Ahaldu Nagusirako Hautagaia .1638: Ahaldu Nagusirako Hautagaia .1640: Ahaldu Nagusirako Hautagaia	.Fruizeko hamarrekoak	Ez
Don Santorum Gómez de Meñaca	.1632:Ahaldu Nagusirako Hautagaia	.Arrietako hamarrekoak (herena)	Bai
Pedro Guerrero de Andía	.1630: Erregidore	.Uribeko Merinautza	Bai
Sancho Martínez de Leura	.1632: Erregidorerako Hautagaia	.Butrón-eko burdinolak	Ez

Villela Zorrilla Arce-ko Kondea (1627) eta don Martín de Villela (1641) -gutxienez- Santiago-ko abituak eskuratuko zituzten (cf. V. VIGNON eta F.R. DE UHAGÓN: *Indice de pruebas de los caballeros que han vestido el hábito de Santia -go desde 1501 hasta la fecha* Madril, 1901). Kasuren batetan -don Juan de Villela Olabarrieta- seme naturala izanik ere.

69. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: J. Pérez de Yurreta: 8. p.s.: 1609.X.19. Zoritzarrez, ez ditut ondare multzo hauen kantitate osoak ezagutzen.

70. Madrilerako 1616.eko ordezkotza, esaterako (B.F.A.A.: A.A.: Batzar Nagusietako Aktetako 7. Liburua (1613-1620): 62-63. orr. Bi kide hauen Jaurerriko erakundeetako eginkizunak garrantzi handikoak izan arren (Madrilerako ordezkaritza, akordioetako idazkiaren ardura, etab.), ez dira sekula Ahaldundietan parte hartuko, non berauen oligarkizapenaren mugak azaleratzen diren edo.

71. J.C. GUERRA: Art. cit., 54-55. orr.

<i>Kidea</i>	<i>Foru Aldundiko karguak</i>	<i>Errentapena</i>	<i>Dohaina</i>
Don Antonio de Múxica	.1609: Ahaldun Nagusia .1624: Ahaldun Nagusiarako Hautagaia .1626: Ahaldun Nagusirako Hautagaia .1628: Ahaldun Nagusirako Hautagaia	.Albonigako hamarrekoak .Gorlizgo hamarrekoak .Bakioko zeharrola erdi, tiradera bat, ta errota bat	Ez
Don Gaspar de Múxica	. 1640: Erregidore	.Berangoko hamarrekoak Arumenzako burdinolak	Ez
Pedro Ortiz de Mendiola	.1626: Erregidore	.Murelagako hamarrekoak	Ez
Don Juan de Urquizu	.1628: Erregidore	.Elorrio ta Etxebarriako hamarrekoak	Ez
Lucas de Zurbano	.1618: Sindiko .1622: Sindiko .1626: Sindikorako Hautagaia .1626: Idazkarirako Hautagaia .1628: Sindiko .1636: Sindikorako Hautagaia	.Barrikako hamarrekoak	Ez

\* Iturriak: B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Juan Pérez de Burgoa: 4727. p.s.: Butrón eta Múxica oinetxeetako don Juan de Trauco-ren 1633.eko kontuak (1634.VII.1); halaber, Juan Martínez de Jarabeitia: 4634. p.s.: Butrón eta Múxica oinetxeetako don Juan de Trauco-ren 1634.eko kontuak (1635.II.2).

\* Oharra: Foru Aldundiaren kargudunen aipamena 1600 eta 1640. urtebete bitartekoa da.

Batzar Nagusietan agertzearen debekua izanik ere, nola zeharkako jokaeraz baliatuz bere eragina haraino bideratzen zuen begibistakoa da. Bere balore gehieneko ondare multzoen kokapenarekin batera, Uribeko Merinaldean zehar nagusituko zen, batik bat<sup>72</sup>. Aurrekoak ezezagunak izanagatik ere, 1633 eta 1634.eko bere Bizkaiko diru-sarrerak kontsultatuta, nahiko beherakada inportantea jaso zutela antzeman daiteke. Hori dela eta, halako -ustez- esku zabaltasunezko neurriak: zein motatako ordainketa jaso zezakeen beraien truke ez baldin badakit ere, suposa daiteke, nola baita ezezagunak ditudan bere errenta maila gordinei esker Jaurerriko krisialdien gainetik zegoela ere.

Hau dela medio, berak -gaitasun ekonomiko nabarmeneko familia bizkaitar anitz ez bezala- ez zuen ezkontza-estrategia Jaurerriko esparru murriztan mugatu, ezta bertako abagadunetara moldatu ere. Izan ere, bera don Carlos de Alava eta doña Isabel de Guevara-ren alaba zen doña María de Alava Guevara Tribiana eta Cerrátón-go oinetxeetako titularrarekin ezkondua zen; bere seme nagusia zen don Francisco de Idiaquez doña Francisca de Borja y Aragón Esquilache-ko Printzesa ta Simari eta Mayalde-ko Kondesa-rekin batuko zuelarik. Gaztelako maila gorengoko noblezia modura, bere odolezko loturek Erregetzaren onspena izan beharko zuten<sup>73</sup>.

72. Handik kanpoko sarea gutxietsi barik: don Antonio de Traña abadinotarra, bertako hamarretako errentaria, adibidez.

73. Bere alaba eta Galvez-go Kondearen arteko ezkontzarako, adibidez (S.A.: Gaztelako Erret Ganbara: 1206. p.s.: 78. orr.; 1634.VIII.20)

## GARAIOK GOI MAILAKO KLASEEN TESTUINGURUA

1630.ean egiaztapen juridikoa izango zuen nekazal gune eta hiri esparruaren arteko batuketak familia estrategietan zein eratan suertatzen zen antzemateko Jaurerriko kargudun eta merkatal alorreko kide adierazgarrienetarikoak ziren Kotsuletxeko arduradunen ezkontza eta besterenganatze politikak ikertzen saiatu naiz. Ezkontza-hitzarmenak eta testamenduak gai honen ardatz nagusienak ditugu. Bertan familietako gaitasuna, ahalbideak, interesak, etab.; famili estrategia, azken batean azaltzen dira.

Printzipioz, goi eta erdi mailako kideak (1600 eta 1640 bitarteko Jaurerriko kargudunak, garai bereko Bilboko Udaleko kideak eta Kotsuletxeko Fiel edota Kotsulak; habitu militarreko titularrak; edota gehienbat eskulangintzaz bizi ziren beste hainbat bilbotar, eta guzti haien aurreko eta ondoko gizaldiak ere, alegia) diren larogeita hamalau ezkontzatan oinarritu da. Ez dira kasu guztietan dokumentu orijinalak ezagutzen; maiz askotan, aitzitik, bestelako agirietan (i.e., epaketetako autoetan, ahalmenetan, etab.) aipatutako erreferentzi batzu ere erabili izan dira. Oinarritzko datu batzu ez ditut osatu ahal izan, zoritzarrez: adina (agirietan ez dira agertzen eta), eta gizaldiz gizaldiko ondasun kopuruetakoa bilakaera (oso datu murrizak izanik, inolako fidagarritasunik ez izateagatik<sup>74</sup>).

Hona hemen emaitzak, jatorriari dagokionez:

Jatorria	Kideak	%
Lur Laueko kideak ezkontide biak	17	18,08
Hiribilduetako kideak ezkontide biak	46	48,93
Hiribilduko senargaia eta Lur Laueko emaztegaia	13	13,82
Lur Laueko senargaia eta Hiribilduko emaztegaia	16	17,02
Ezezagunak	2	2,12

Zenbaki gordinek ez omen dute balore gehiegirik, hain kopuru txikia izateagatik. Ezta, seguru asko, hiribilduetako zein Lur Laueko ezkontide bien zenbatekoak, laginketa guztiz aleatorioaren emaitza ez izatearren -gehienbat Bilboko kideak dira eta. Lur Laueko emazteekin lotzen diren hiribilduetako ezkongaien portzentaiak ez digu nekazal eremuarenganako mugimenduari ideirik eman behar: gehienbat Merinalde bereko kideekiko ezkontzak dira (hau da, Bilboko *hinterland*-ekoak), betiere -behin ezezaguna bada ere- senarrarenera doazen. Aldierantzizko ereduari, berriz, mugimendu biak ditugu: hamairu aldiz senarrarenera -nekazal alorrera, alegia- doaz; hirutan emaztearenera doazen bitartean. Mugimenduek, dirudienez, ez dute norabide bakarrik edota nagusirik. Bilboko ustezko erakarpena ez da, alta, hain garbi azaltzen.

Loturen esparruaren azterketak honako emaitza hauek eman dizkit:

Ezkontideen jatorria	Hiribilduak	Lur Laua(*)	Mistoa
Udaleri berekoak	42	3	0
Merinalde berekoak	2	6	15
Jaurerrikoak	1	5	8
Kanpoko ezkontidea	1	2	7
Ezezagunak		2	

(\*) Egia esan, Lur Laua baino nekazal eremuaz ari naiz zutabe honetan (Bizkaitik kanpo Elizatez egituraturiko Lur Laurik ez dago eta).

74. Sei kasu besterik ez dira: hirutan gehitzen dira, beste hirutan murrizten direlarik.

Nekazal eremukoa ez bezala, hiribilduetako ezkontza-politika itxia begibistakoa da. Noski, ezkontza mota honen tokia eta portzentaien ezorekaren arduraduna Bilbo dugu: hogeita hemeretzi, hain zuzen; kanpoko udalerriko ezkontideren bat hogeita hiru diren bitartean. Jaurerriak kanpoko ezkontideei dagokienez, estrategia ezberdinak daude: hainbat leinu zaharrek (v.g. Butrón y Múxica, Vilela, Leguizamón, etab.-ek) izandako ohizko goi mailako ezkontza-politikarekin batera, pasa den mendeko gorakadari esker Bilboko goi mailako postuetara heldutakoek, beraien *status*-a finkatu nahian edo, ohore handiko abizenekiko loturak (Antonio Victoria de Lecea eta Marta de Mariaca-ren arteko ezkontza, esaterako). Nahiz eta Bilboko Ordenantzek kanpotarrak baztertu, atzeritarrekiko ezkontzak ere egon bazeuden: Juan Brustin eta Juana de Mendieta, edota Hernando Munier eta Antonia de Llona<sup>75</sup>.

Aurreko arazo berberan sakontzeko (1630.eko Konkordiak goi mailako klaseetako famili estrategian aldakuntza suposatu zuenenez, alegia) beraien ezkontza politikarengana jo dut beste bide batez: 1600 eta 1640. bitarteko Jaurerriko kargudunak eta -Bilboko burgeseriaren buruzagitza zen- Kontsuletzeko Fiel eta Kontsulen azterketa (betiere emaztea ezagututa), beraien arteko jomuga 1630. urtea izanik<sup>76</sup>. Hona hemen Lur Laua ta Hiribilduen arteko ezkontzak:

	1600/1630	%	1630/1640	%
Bai	18	13,13	17	13,93
Ez	101	73,72	80	65,57
Ezezaguna	18	13,13	25	20,47
Guztira	137	100	122	100

Dakusagunez, eremu bietako loturak ez omen dira oso portzentai haundietan suertatzen; are gehiago: 1630.etik aurrera gehitu baino moteltzen dira, nonbait. Hau ez da zehatz-mehatz hala izan behar (kargudun guztietako emazte kopuru erdia -ehuneneko 48,23 eta 48,60, hain zuzen- ez baitut ezagutzen)<sup>77</sup>; baina ezta eredu orokorra derrigorrez oker egon ere. Gehienbat alor bereko ezkontzak izateaz gain, nekazal eremua eta Bilbo ez den ingurueneko hiribilduko kideen artekoak ditugu:

- Pedro de Durango Uribitarte eta doña Isabel de Abendaño
- Juan García de Algorta eta María Ruiz Nieto de Yarza
- Don Donato de Gortazar Vilela eta doña Catalina de Abendaño
- Don Juan Iñiguez de Ibarquen de Ercilla eta doña María Ochoa de Ugarte
- Gonzalo de Lopategui ta doña Catalina Saez Inglés
- Don Martín de Munibe eta doña Cecilia de Axpe

75. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: G. Vilela: 3874. p.s.: 1592.IX.27; atal bereko Isk.: A. Pagoeta: 3976. p.s.: 1611.X.29; eta Isk.: Juan de Legarreta: 5375. p.s.: 1599.X.16. Ez omen ziren, azkenengo hauek, merkatarri handiak: lehenbizikoa margolaria zen (bere aitagarreba zen Francisco de Mendieta bezala), bigarrenak 1.000 dukata, etxebizitza, ta merkantzia batzu zeukan bitartean. Atzeritar gehienak ez ziren, aitzitik, Bilbon finkatu: horren ondorioak bertako merkataritzako irabazkinek sufriruko zituzten.

76. Egia esan, taula guzti hauen fidagarritasun maila ez da gehiegizkoa, ezkontza estrategian alderik baldin bada goen jakiteko ezkontzaren data ardatz nagusia baita. Datu hori ezezaguna zaidanez gero, bide horren orde, behinik behin, kargudunen datak hartu ditut taldeak banatzeko, non 1630.etik aurrera Jaurerriko Gobernuan kide berriak sartu ahala, joera ezberdinak azaltzekotan, aldaketaren adierazbidetzat har daitezkeen.

77. Horrez gain, ezkontza batzuk ez dute ezer frogatzen, zeren eta ezarritako mugapena zen 1630. urtea baino beranduago ospatu baitziren: hala da, gutxienez, don Mateo de Taborga -1632.IV.18- eta Juan Pérez de Múxica y Landaguren-en -1632.VII.10- adibideetan.

- Don Martín Pérez de Coscojales eta doña Casilda Salazar
- Don Gonzalo de Ugarte eta doña María Hurtado de Zaldívar
- Martín de Urquiza eta doña María de Zatica

Era berean auzotartasuna ez da erraz lekutzen, goi mailako kide askok udalerrri anitzetako eskuratu dute eta. Beraz, datu hau ere kontu handiz hartu beharra dago. Errenta moten analisiak, berriz, askoz fidagarritasun gehiago eman diezagukelakoan nago.

Aldierantzizko adibideak (hau da, Kotsuletzeko partaide eta Jaurerriko oinetxe nagusietako kideen artekoak) egon baldin badaude ere, eskasak dira; besteak beste:

- Juan Bautista de Ceceyaga eta doña Mariana de Urasandi
- Nicolas de Hormaeche eta doña Bárbara de Urasandi
- Don Pedro de Nobia Uribarri ta doña María de Abendaño
- Juan de Pérez de Múxica Landaguren eta doña Catalina de Aperribay
- Pedro Sabugal de la Puente eta Catalina de Butrón y Múxica
- Don Mateo de Taborga eta doña María de Arroyos
- Pedro de Urasandi ta doña Bárbara de Taborga

Familien arteko estrategiak, bestalde, ezberdinak izan daitezke; honela, agian, aurrez aipaturiko Urasandi abizena -aztertutako senitate gehienak ez bezala- hainbat alditan agertzea azalduko litzateke. Azalpen honek, bestalde, oraingoz osatzeke dudak familietako kide guztien analisisara garamatza; ea beste kideen bidez zeharkako loturak hasi ote zirenetz ikertzeko. Kargudunak eta familia nagusietako buruak ezezik, beste senitate guztiak jarraituz gero, beraz, egoerak alda zezakeen. Demagun Victoria de Lecea anai-arrebak: María Antonia-k Diego de Arana Zubiaur bilbotarrarekin esposatu zuen; María Francisca-k Portugaleteko Matias de Salazar Muñatones y Bañales maiorazkoa; Antonio-k Micaela Mendieta e Ibaizabal, eta María-k Juan Antonio de Beurco Larrea barakaldotarra. Merkatarien Jugo familia bilbotarra aipatzekotan, berriz, eredu berbera datorkigu: Juan, Antonia de Zubiaur bilbotarrarekin ezkondu ba zen ere; Domingo de Jugo, Isabel de Butrón y Múxica-rekin; San Juan de Jugo, Constanza de Arancibia-rekin; Mari Ibáñez Aparicio de Hormaeche-rekin; edota Mari Ochoa Domingo de Lezama Arana-rekin<sup>78</sup>.

Ezkontza ba da, gizonen aldetik, gizarte honetan barnertzeko betebeharra. Norberaren *statu quo* finkatzeko, gaitasun ekonomikoa sendotzeko, edota -besterik gabe- garaiko egituretan jarraitzeko premiazko eginkizuna. Ezkongaien kopurua, beraz, oso murrizta zen<sup>79</sup>. Bestelako irtenbideak, hala ere, bazeuden: Ameriketarako migrazioa, Erret Armadarako edota burukraziako bizibideak (berauek eskeintzen zizkieten aberasteko abagaduneak famili estrategiaren ondoriozko aurreko kanporaldaketa moteltzen zuelarik), apezteria (emakumeek ez bezala, ez zuten komentuetara aurrez diru kopururik eraman behar). Alabak kokatzeak, zalantzarik gabe, askoz buruhauste gehiago sortarazten zituzten familietan, eta bai ezkontzeko nola baita moja izateko ere gurasoek dirua pagatu behar.

Honek behe mailako klaseen artean sor zitzakeen ezorekak baretzeko edo, talde nagusiak mende honetako ustezko sinesmenaren testuinguruan baino joera paternalistatza hartzen ditut gaitasun ekonomikorik gabeko alabak ezkontzeko prestamenetan ezarritako diru ko-

---

78. A. BASANTA DE LA RIVA: *Nobleza vizcaína. Estudio genealógico de pleitos sobre vizcaína y mayorazgos del Señorío* Valladolid, 1928, 230-235. orr.

79. Kargudunen artean Martín de Ansoategui etxebarriatarra da orain arte ezagututako mutilzahar bakarra (ikus. A. BASANTA DE LA RIVA: Op. cit., 69. orr.).



puruak. Ahalbide gutxiko familia hauek saiaturiko ziren ahal zen neurrian, doteak osatzen: Juana de San Martín y Cavallos etorkin alargun abandotarrak, adibidez, bere alaba zen Mari Saez de Elguero Matxinadan erahildako Domingo de Castañeda-rikiko ezkontzarako Lope de Pilla-ren 162,6 dukata eskuratzeaz gain 200 dukatatako ostilamendua ta 440 dukata emango zion<sup>80</sup>): ezkontza honen ezoreka (senargaiak balorerik zehaztu gabeko ostilamendua baino ez zeraman eta) emakumeen doteen defizitarekin ez dator bat. Erakunde hauek sortzailearen senitarte mailan zuzendu ezezik, dirulaguntza jasotzeko lehentasuna sortzailearen zuzen zein urruneko senideen aldeko arauak ezartzen zituzten, familia mailako elkartasun zein menpekotasunezko loturak estutuz. Izan ere, legez kanpokoan zen zenbateko hauek familia zabalaren ingurutik desbideratzen saiatu bezain arin, bertan behera gelditzen ziren: Durangoko Roque López de Unda Kapitanak (Unda leinuko ahaide nagusia), adibidez, lau urtetako epaiketaren ostean amore eman behar izan zuen 1597.ean<sup>81</sup>. Senitarte barneko interesak eta dirulaguntzetako jasotzaileak ezezik, bestelako onuradunak ere bazeuden: noizbait titulartasuna izaten duten erakunde erlijioso eta laikoak. Eta ez bakarrik ohore edota gizarteak beraien-ganako izan zezakeen begiruneagatik, baizik eta onura ekonomiko hutsagatik ere<sup>82</sup>. Era berean, krisialdiko garai honetan beraiek ere arazoak sortarazten zituzten: Gaztelako Koroaren menpeko errentetako konfiskapenak zirela medio, Juana de Mallea-k sorturiko ezarpeneko dirulaguntza erdia (ezkongai bi baino batentzako babesa, alegia) besterik ez zuen eskeini ahal izango<sup>83</sup>. Aurreko kasuan nola familiako interesak berauen erabilpenaz baliatzen diren agertzen da: don Gonzalo de Ugarte-k Durangoko Andoni Deunako komentuari Miguel de Echo-k ezarpenari itzultitako 200 dukatatako zentsua erosi zion 1624.ean; 1637.ean ezarpeneko patroia zen doña Ana M<sup>a</sup> de Zaldibar Ugarte-ren emazteak Mariana de Zaldibar -Francisco Hurtado de Zaldibar y Mallea bere osabaren alaba naturala- aukeratuko zuen<sup>84</sup>. Era berean diru laguntza hauen eskurapenerako auziak<sup>85</sup>.

Besteak beste, ezkontzarekin pareka daitezke (bestelako kontratu ekonomiko modura, alegia), komentu zein elizetako sarrerak, emakumeen kasuetan batik bat, non beste horrenbeste dote eraman beharra zuten (izan ere garaiko erdara idatzian ez ziren ezberdintzen, biak "tomar estado" deitzen zirelarik). Erakunde erlijiosoetarako diru desbiderapenak, maiz askotan, beste era bateko maiorazkotzat har daitezke, nik uste<sup>86</sup>. Apezpikuak inolako kompetentziarik izan ez zezan fundatzaileak patroiaientzako eskubide guztiak gordeko zituen:

"...y esta capellanía la fundamos e instituímos con condicion que la renta y patronazgo della no se entrometa, ni pueda entrometerse, su señoría el obispo, o provisor o visitador, ni otro ministro eclesiástico suyo (...) ni presentar, colar ni proveer la dha. capellanía, ni cosa alguna della, ni nombrar capellan, ni patron, ni otra persona (...) y si acaso se entro-

80. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: F. Allende: 2529. p.s.: 1609.XII.13.

81. V.E.K.A.: B.E.: 65. p.s., 10. znbk.: 1597.X.3.

82. Nola, bestela, ulertu Mari Saez de Elguero-ren adibide berean (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: S. Zurbano, 151-158. orr.), ezarpeneko patroia zen Bilboko Udalak ordainketa bost urtez atzeratzea?

83. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: S. Ibáñez de Arteaga: 60. p.s.: 1624.XI.17.

84. B.A.H.P.: Ibid.; atal bereko Isk.: J. Bta. Gamboa: 82. p.s.: 1637.VIII.7.

85. Lope de Pilla-ren ezarpenaren diru-laguntza eske, Domingo de Acha deustuarrek ezetza jaso zuen Bilbokoa ez izateagatik. Auziak Erret Kantzelaritzaraino heldu omen ziren (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: S. de Zurbano: 4328. p.s.: 1630.III.26.

86. B. CLAVERO-k (*Mayorazgo. Propiedad feudal en Castilla 1369-1836* Madril, 1974, 174. orr.) aldez aurretik proposaturiko parekotasuna. Nire testuinguruan, berriz, ez kapeletako eraikuntza eza, ezta garrantziarik gabeko elizkizunak ere ez dira betetzen. Ikus. ondoko oharra.

metiere en tomar el dho. patronazgo (...) por el mismo caso deshazemos desde ahora el dho. patronazgo y capellanía...<sup>87</sup>

Ulgarría da patronato laikoak etengabeko erasoak jasatzen ari direneko garai honetan.

Eliza, era batetan zein bestetan, gizarte zibilaren baloreen eraginpean zegoen, edo -nahiago bada- beronen baloreak barneratzen zituen. Honela, Juan de Landaverde-k Begoñako Andra Mariko elizan etxezaintza bete zuenean zorpetu bazen ere, Malluquiza Lizentziatua hil bezain laster Pedro de Landaverde bere semearentzako erdietsi zuen husturiko eliz onura (zeharkako ordainketa modura, eskainitako 100 dukatatako dohaina eman zion)<sup>88</sup>. Komentuen eskariz, bere mojaren baten izenean, ekarritako dotea zela eta, familiaren aurkako auziak ere ugari ziren. Abandoko Santa Klarako komentua Francisco de Salazar-en kontrakoa Erret Kantzelaritararaino iritsiko zen, Bilbao, Artunduaga eta Echavarriko maiztergoak eztabaidagai, María de San Pedro mojaren ustezko eskubideak zirela medio<sup>89</sup>. Jakina, aldierantzizko ikuspegia ere ukatzerik ez dago: familiek zenbait alaba ahalik eta azkarren igortzen zituzten komentuetara, emandako dotea gurasoen legitimak baino murriztagoak izanik eta legekien oinordekotzari muzin egin ondoren, beste seme-alabentzako doteak gehitzeko asmoz<sup>90</sup>.

Gatozen ezaguturiko larogeita lau testamenduetara. Garai honetako gertakizunik garrantzitsuena zen 1630.eko Konkordiak ez zuen Zuzenbide Zibila moldaketarik sartuko<sup>91</sup>. Pentsa liteke, beraz, bikoiztasuna eremu ezberdinetara moldatzen zela (Lur Laueko soberakinak kanporatuz eta hiribilduetako gainontzeko seme-alabak ogibideren baten bidez egoera finkatzeko ahaleginduz). Ezaguna da, baita, gizaldiz gizaldiko ondareen jaraunspenak ez zuela auzotasuna kontutan hartzen, ondareen kokapena baizik. Hiribilduetan, beraz, aintzinean nekazal ekonomian sustraitutako maiorazkoetako titularrak ditugu: Nobia-tarrak; Leguizamondarrak; etab. Berauen testamenduen bidez XVI. mendeko aldakuntzak isladatzen dira: lurreko errentak ezezik sorburu berriak ere badaude: Pedro de Nobia Uribarri merkataria dugu<sup>92</sup>; Domingo Martínez de Isasi-k ere merkataritzaz eta untzigintzaz<sup>93</sup> ihardun zuen; etab. Dikusagunez, erakundetako bikoiztasun hori ez omen da goi mailako famili ekonomian horren garbi azaltzen.

Gaztelako legeria eta Bizkaikoaren arteko aldeak ere ondorio nabariak dauzka gizaldiz gizaldiko besterenganatzeetan. Seme-alaba naturalek, jaraunspena jaso ahal izateko, aitaren onarpena behar zuten. Aztertutako testamenduetan onarpen anitz kausitu ba dut ere, izkuta-

---

87. Jarraian 1.000 mezatako agindua eman zuen. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: S.J. Urquieta: 3785. p.s.: 1632.IX.10. Baldintza guztiak arruntak ziren halakoetan.

88. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: G. Lopategui: 5009. p.s.: 1630.I.19.

89. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: G. Lopategui: 5012. p.s.: 1633.IV.28. Don Francisco de Salazar-en emaztea zen doña Magdalena de Abendaño eta María de San Pedro maiorazkoetako titular ohiaeren arrebak ziren.

90. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 3620. p.s., 20. znbk. (1640.X.21).

91. E.J. LABAYRU: Op. cit., V. aleko 674. orr. Behin behineko zirriborroan hiribilduetako Legedi Zibila baliogabetzen bazen ere, Bilboko Udalaren izenean A.L. Barrenechea eta P. Sarabia abokatuen errefusapenak (T. GUIARD: Op. cit., II. aleko 184. orr.) bertan behera utzi zuen azkenengo proiektuan. Berriro ere, Bilboren nagusitasuna ukatzerik ez.

92. Kotsuletzeko judikatutarak bete zituen hainbat aldiz (bertako zerrendetarako, supra, 18. oharra).

93. 1619 eta 1628. bitartean *Sta. Teresa de Jesus* galeoiaren jabetza (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: S.J. Urquieta: 3785. p.s.: 1635.XII.10); edota burdingintzaren salmentarako 1626.VII.30.ean 327.000 errealetako konpainiako partaidetza (B.A.H.P.: N.A.: Isk.: J. Pérez de Burgoa: 1631.I.21).

tzen ziren kasuak -egotekotan- ez ditut ezagutzen<sup>94</sup>. Familiako jaraunspena jaso ahal izateko Erret Kontseiluataraino jotzen zen: don Cosme de Muguertegui berriatuarrak, esaterako, bere aita zen Pedro Fernández de Muguertegui Kapitaina eta bere oinetxeko titularrarengandik jaso ahal izateko<sup>95</sup>. Izan ere, sasikumea izan arren, *don* tituluduna dugu<sup>96</sup>. Ez zen kasu bakarria izan. Sasikume batzu gizarte honetako kide poteretsuenetarikoak ditugu: Alejandro de Echavarrí merkataria<sup>97</sup> edota Jacobo de Ugaz Hormaeche bilbotarra<sup>98</sup>. Kide hauek eredutzat hartzerik ez dago: izan ere, Jacobo de Ugaz Hormaeche-ren kontrako autoetan (Udal mailan) seme naturala izatea leporatuko zioten<sup>99</sup>. Salbuespenak balira ere, dena dela, adierazgarria da.

Bizkaiko oinordekotza sistemaren zutabe nagusienetarik oinetxekotasuna eta ondoriozko maiorazkoak ditugula esan beharrik ez dago. Maiztergoa tradizionalki goi mailako leinu zaharrei edota nekazal eremuko kideei lotzen bazaie ere, garai honetarako edozelango jatorri eta baloretako ondare multzo bat juridikoki lotzeko oso oinarri sozial zabal eta ezberdinak erabil dezakeen tresna juridikoa da. Izan ere, burgeseriak ere sortzen ditu. Are gehiago, noizbait bat baino gehiago: horra non Fernando de Taborga merkatariairen eredia dugun: bere bi seme nagusienak ziren don Mateo eta don Fernando-ri 1624.ean sortutako maiztergo bana<sup>100</sup>. Beraien bidez goi mailako kideen errenta moten araberako mugak deuseztatzen direla inferi daiteke. Ikertzaileon etsipenerako, buru belarriz prestaturiko gizarte honen sailkapenak bertan behera gelditzen zaizkigu eta. Adibide pare bat adierazgarriak izan daitezke: artzeniegatar jatorrizko Juan Ortiz de Saracha merkataria bilbotarrak maiorazkoa sortu arren, ez zion abeltzaintzari muzin egin<sup>101</sup>; aurrez aipaturiko Diego de Irujta-ren maiztergoan, berriz, merkatal konpainia baten berri ematen da<sup>102</sup>.

Maiorazkoetako ondareak, zilegi ez ba zen ere, noizbait lokarritik kanpo bestereganatzen ziren, salatzailea auziperatua izan arren. Marcos de Taborga-k esaterako, bere anaiak salatu zituen gurasoen maiztergoetatik 5.943,5 dukata saltzeagatik<sup>103</sup>. Baita San Juan de Jugo Ezquerria-k ere: honek maiorazkoaren oinordekoa izango zen Domingo bere anaiari saldu zion la argudiatu zuen bere defentsan<sup>104</sup>. Izan ere, maiorazkoetako ondareen elkartrukeak ere badaude. Produktibotasun ekonomikoa hobetzeko asmoz, nonbait, Erret Eginkizuna eskuratu

---

94. Seme-alaba naturalen portzentairik ez dut ezagutzen. Garaiak ziren, nonbait. Gonzalo de Ugarte-k, esaterako, sei seme-alaba natural onartu zuen, gutxienez, hogeitertirik aurrera (B.E.A.H.: Markinako Andra Mari (53015): Bataioetako Liburuak, 1578-1632).

95. S.A.: Gaztelako Erret Ganbara: 1205. p.s.: 1634.III.4.

96. B.F.A.A.: A.A.: Batzar Nagusietako Aktetako 9. Liburu (1629-1638): 1634.X.3/1635.V.15.

97. J.P. PRIOTTI: *Los Echavarrí. Mercaderes bilbaínos del Siglo de Oro. Ascenso social y económico de una familia* Bilbo, 1996, 45. orr.

98. Martín de Larrea eta Teresa de Basterra-ren sasikume, hirutan (1636, 1639 eta 1644.ean) gutxienez, Bilboko Alkatetza bete zuen.

99. V.E.K.A.: B.E.: 1012. p.s., 1. znbk.: Bilboko Udalaren aurkako abokatuen salaketa (1626).

100. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1144. p.s., 40 znbk.: 1-3. orr.

101. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Diego de Zamudio: 4038. p.s.: 1621.VII.13; eta atal bereko Isk.: F. Allende: 2529. p.s.: 1609.I.12.

102. *La Magdalena* itsasontziko bazkidea (*parcionero*) izan zen (B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 442. p.s., 8. znbk.: 1624.X.7).

103. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 128. p.s., 22. znbk. (1656). Marcos de Taborga bere anaiak oinordekotzarik ez izanez gero beraien maiorazkoak jasotzeko lehenbizikoa zela esan beharrik ez dago.

104. B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 1544. p.s., 27. znbk. (1599.V.27).

ondoren, esaterako, Jacinto Hurtado Tavison-ek eta doña María Hurtado Tavison-ek (Iñigo Hurtado de Yarto y Salcedo-ren izenenan): Oyardo Marroquin-go maiztergoarena zen Guerguen-go errota erdia, Recalde-rena zen Anieto-ko errota erdiaren truke (Jacinto-k burdinola bilakatu ahal izango zuen jasotako errota)<sup>105</sup>.

## KONKLUSIOAK

- Foru Sistemak ezarritako berdintasun juridikoari esker ez dago -printzipioz- maila guztietako gizabanakoen arteko loturak debekatzerik. Hau dela medio, ezkontzak ezkontideen senitarteen estrategia -askoz estrategia libreago, alegia- adierazten du.

- Ondareen besterenganatze azterketaren bidez, halaber, famili estrategia (hein batetan, gutxienez) nola baita kide bakoitzaren gaitasun ekonomikoa ere inferi daitezke. Talde ezberdinen arteko sareak definitu ere, berauen bidez loturak sortzen, berrindartzen edota azalera-tzen direlako.

- (Gutxienezko) bi alditako talde sozialen zabalkuntzak gatazka honen sakoneko izaera- ren berri eman diezaguke: bietan omen ziren jauntxoak, burgesak, legegizonak, iskribauak, etab. Banaketa honek ez ba du berez gatazkaren *izaera* azaltzen, klaseen arteko borroka eze- zik -gatazka mota hau baztertu gabe- bestelako gatazka motak ere egon zitekeela adierazten du. Eta izaeraz gain, erreboltarien (edo berauetako batzuen) *objektiboak* ere birplanteatzen ditu. Izan ere, jauntxoen partaidetza hipotesi honetara darama. Halaber, ogibide liberalen na- gusitasuna.

- Garai honetako estualdiaren adierazbidea den don Juan Alonso de Idiaquez ordena ber- rezartzeko deitzea larrialdia beraren tamaina isladatzen du, nola baita altxamenduko geo- grafia zirriborratzen duen ere: beste hainbat inplikaturik ez bezala, Bilboko abiapuntua ez izan arren, Bilboko Alkatetzarako deitua izango zen (legez kanpokoa bazen ere). Elementu asko omen ziren bere aukeraketarako: besteak baino errenta gehiago, menpekotasunezko sare za- bal eta erabakiorrago,... baina baita *oinetxea* bera ere<sup>106</sup>. Zein neurritan eragiten duen ele- mentu bakoitzak ez naiz oraingoz zehazteko gauza.

- Inplikaturiko kide batzuen gaitasun ekonomikoek (zigortutakoen behin behineko estual- di baten ondoren edo) ez omen zuten aldakatarik pairatu. Kasu batzu ez ditut ezagutzen; bes- tetan familiko gizaldia desagertuz gero galtzen ditut. Ezagututako eredu batzu, dena dela, adierazgarriak dira: De la Puente-rena, edota Iruxta-rena, esaterako. Kide batzueetako ja- rreretan objektibo eta bideen arteko *ageriko* ezoreka -agian- ez zen halakoa izan. Gakoa sakoneko helburuak zeintzu ziren eta zein neurritan bete ziren jakitea da.

Oposaturiko taldeen oinarri sozialaren zehaztapenak ez digu alde zurririk<sup>107</sup> ezaguturi- ko gatazka mota berririk ematen, bai -berriz- finkatzen dituela aurreko hipotesiak. Baina era berean aurrekari eta ondorengo beste perspektiba ezberdina eskein diezaguke: zergaitik ez du ematen inflekzio puntua zenik epe luzean izan goi mailako hainbat kidetan?

---

105. B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Martín Humaran de la Quintana: 1534. p.s.: 1642.IV.8.

106. Oso estualdi larriko uneei dagokie, aurreko urteetan, Ahalduen Nagusiak deitzea: XVI. mendeko Batzar Nagu- sietako deialdiak ikusi besterik ez dago...

107. Azken finean alde zurririk R.M<sup>9</sup> MIEZA-k (Art. cit., 41-58. orr.) proposaturiko gatazka lerroak besterik ez dira.

- Bilbo gune erakargarri bezain gatazkatia da. Bertara bideratuko ziren Matxinadan zuenki inplikaturiko garrantzi handiko zenbait kideren estrategiak. Bilboren erakargarritasuna ukatzerik ez egon arren, ez *dirudi* -orain arteko nire emaitzen arabera- bertara une honetako Lur Laueko talde nagusiko zenbait famili estrategia hara zuzentzen zirenik. Hau, zoritxarrez, oraingoz ziurtatzerik ez: aurreko tauletako datuak askoz osatuagoak izan arte, zeren eta Lur Laueko jauntxo tradizional eta hiribilduetako burgeseriaren eredu ekonomiko kontrajariak ez baitira azaltzen. Era berean, bi eremuetako kide nagusien arteko harremanak ezezik, beraien senitarteenak ere aztergai izan beharko dira ikuspegi partzialak ez izateko.

- Garaiko abagaduneak eragindak, ezohizko jaraunspen konfliktiboaren bi adierazbide aurkitu ditut. Alde batetik famili barneko ernegazio ezaren ondoriozkoa (Basurto y Acha edota Ceceyaga familien aipaturiko adibideak). Bestalde, Matxinadaren ondoriozkoa: Morga Litzentziatua-k pairatutako debekua, esaterako. Bide eta ondorio ezberdineko bi prozesu hauek iturburu bereko ala jatorri diferenteetako emaitzak dira?

Hasieran aitortu bezala, erantzunak baino galderak ez naiz planteatzeko gauza izan aurreko lerrotan. Eskerrak batzu nola ihardetsi aurreikusten dudala. Edozelan ere, erantzunen arabera baino itaunketaren baliogarritasunaren arabera egongo da lan osoaren arrakasta ala porrotaren gakoa.

## LABURDURAK

B.A.H.P.: Bizkaiko Artxibategi Historiko Probintziala  
B.E.A.H.: Bizkaiko Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa  
B.F.A.A.: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibategia  
S.A.: Simancas-go Artxibategia  
V.E.K.A.: Valladolid-go Erret Kantzelaritzako Artxibategia  
N.A.: Notal-Atala  
A.J.: Korreg.: Atal Judiziala: Bizkaiko Korregimendua  
A.A.: Atal Administratiboa  
B.E.: Bizkaiko Entzutegia  
p.s.: paper sorta  
Erreg.: Erregistro  
Isk.: Iskribau